



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN 2022ko AZAROAREN 14ko BILKURAREN AKTA

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2022ko azaroaren 14ko 12:00ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- Jose Antonio Rodriguez Ranz jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidente Beatriz Artolazabal Albéniz andrea ordeztuz. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Asier Aranbarri Urzelai jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakartzaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Ordezkoa: Martín Iriberry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Olga García Martínez andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Alberto Cereijo Fernández jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Presentzialki bertaratu da.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Koordinazio Teknikoko arduradun Alazne Camiña andrea bertaratu da.

Honako hauek ezin etorria adierazi dute:

- Bokala: Beatriz Artolazabal Albéniz andrea, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziaren eta haren Kontseilu Errektorearen zuzendaria.
- Bokala: Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa.

- Bokala: Bittor Oroz Izaguirre jauna, Nekazaritza eta Garapenerako sailburuordea.
- Bokala: Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, berdintasun eta Justizia Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa.
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.

Sarrera

Jose Antonio Rodriguez Ranz jaunak hitza hartu du bertaratuei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio honako gai-zerrenda honi jarraikiz:

1. *2022ko urriaren 17an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.*
2. *2022ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea*
3. *Ekintza humanitarioko estrategiei laguntzak emateari buruzko informazioa*
4. *Galde-eskeak*

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

Urriaren 17ko aktan bere bigarren abizenean akats bat dagoela adierazi du Jose Antonio Rodriguezek eta akatsa zuzentzea proposatu du. Bertaratutakoek oharrrik egin ez dutenez, 2022ko urriaren 17ko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

2. 2022ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea

Paul Ortegak hartu du hitza 2022ko zuzeneko dirulaguntzen azken 7 proposamenak aurkezteko, eta nabarmendu du proposamen horietako lau Afrikan egingo direla, eLankidetzak kontinente horren alde egindako apustua sendotuz.

Lehenengo proposamena Hondurasen garatuko da CESPAD Centro de Estudio para la Democracia elkartearekin, eta Hondurasko gizarte-mugimenduen artikulazioa eta ahots kolektiboa indartu nahi du nekazaritza- eta ingurumen-arloko politika publikoak sortzeko modu berri bat onartu beharra azpimarratzeko.

Bigarrena Kuban kokatzen da, UNICEF-Espainiako Komitearekin, lan urakanaren ondorioei erantzun humanitarioa emateko, eraginpeko komunitate eta eskoletan ur-hornidura bermatuz.

Hirugarrena Senegalen kokatzen da, COSEDDH Coalition Sénégalaise des Défenseurs des Droits Humains elkartarekin, eta Senegaleko giza eskubideetako erakundeen gaitasunak sendotzea du helburu.

Laugarrena ere Senegalen kokatzen da, Réseau Siggil Jigéen erakundearekin, eta generoaren eta feminismoaren kontzeptuak desmitifikatzen eta onartzen laguntzea du helburu.

Bosgarren proposamena Sahelen eta Laku Handietan garatuko da batez ere, Urgent Action Fund erakundearekin, eta Afrikako mugimendu feministak, eta giza eskubideen pertsona defendatzaileen antolakuntza eta erresilientzia sendotzea du helburu.

Zuzeneko dirulaguntza emateko seigarren proposamena Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Lankidetzaren Ministerioarekin gauzatuko da eta Lankidetzaren Ministerioaren lidertza indartu nahi du ministerioko langileen gaikuntzaren bidez, erakundeak lurralde-garapenerako egungo erronkei erantzun diezaien.

Azkenik, Guatemalako Antropologia Forentseko Fundazioari laguntzeko proposamena dugu, erakundeak ikerketaren, komunikazioaren eta ezagutza-sorkuntzaren adarretan dituen gaitasunak sendotzeko.

Galderarik izan ez denez, proposamen guztiak batera bozkatu dira eta aho batez onartu dira.

3. Ekintza humanitarioko estrategiei laguntzak emateari buruzko informazioa

Balorazio Batzordean azaroaren 11n onartutako ekintza humanitarioko 4 estrategien azalpena egin du Alazne Camiñak. Oro har, 9 eskaera aurkeztu ziren guztira deialdi honetara, eta haietatik 4k dirulaguntza jasoko dute, 3ri dirulaguntza ukatu egin zaie funtsak agortu direlako eta 2 kanpoan geratuko dira. Hori horrela, deialdiko 3.000.000 euroak esleitu dira.

Alboan erakundearen kasua nabarmendu du Alazne Camiñak, ezen erakundea deialdi honen Balorazio Batzordea egin zen egunean eLankidetzaren hainbat dirulaguntzatatik jasotako 2.718.471,01 euroko zenbatekoaren esleipenduna baitzen, eta, hori horrela, deialdi honetako ebazpenaren xedapen gehigarriaren arabera, soilik beste 270.528,99 euro gehiagoren esleipendun izan zitekeen. 90/2019 Dekretuaren 4.2 b) artikulua ekintza humanitarioko estrategia bat onartzeko eskatzen den gutxieneko zenbatekoa 500.000 euro dela adierazten duenez, ezin izango litzaiokeen deialdi honetako laguntzarik eman, eta, horrenbestez, balorazio teknikoari ekin zaio.

Asamblea de Cooperación por la Paz elkartearen proposamenaren kasuan, dekretuaren 16.1 artikuluan bildutako eskakizuna betetzen ez duelako geratu da kanpoan, hau da, indarreko Ekintza Humanitarioko Estrategian ezarritako premisak betetzeari buruzko eskakizuna betetzen ez duelako, premisa horiek dekretuaren 1. artikuluan gauzatzen direlarik, kasu honetan esku-hartzearen xede-biztanleriak ez baitu gatazka-testuinguru baten edo indarkeria-testuinguru baten ondoriozko krisialdi humanitariorik pairatzen.

Deialdi honen emaitzaren aurkezpenaren harira, non onartutako azken proposamena ezin litekeen osorik onartu deialdiaren beraren zenbateko guztia baliatu delako, baremazioa jatorrizko aurrekontua edo doitutako aurrekontua kontuan hartuz egiten ote den galdetu du Alberto Cereijok. Baremazioa jasotako proposamenen gain egiten dela erantzun du Alazne Camiñak, erakundeek eskatzen duten bezalaxe. Erakunde baten proposamenak "galbahea" deitutakoa gainditzen ez duenean eta eskatutakoa baino laguntza-zenbateko txikiagoa lortzen duenean, epe bat ematen zaio erakundeari proposamena esleitutako laguntza-zenbatekora doitu dezan berriz ere.

Martín Iriberrik gehitu du praktika egokia iruditzen zaiola GGKEei eLankidetzarekin elkarrizketa izaten uztea aurrekontua doitu behar den kasuetan eta beste deialdi batzuetako aurrekontu-murrizketetara ere zabaldu beharko litzatekeela praktika hori. Alazne Camiñak berretsi du aurrekontu-doitze oso esanguratsuak direnean eLankidetzako gainerako deialdietan ere epe bat ematen dela doitu ahal izateko.

Bestalde, Asamblea de Cooperación por la Paz elkartearen ekimenari buruzko komentario bat egin du Oihana Etxebarrietak, bere kezka adieraziz klima-aldaketaren

ondoriozko hondamendi naturalak aurrerantzean ere gehitu egin daitezkeelako, eta bere ustez gogoeta bat egin beharko litzatekeelako klima-krisialdiarengatik desplazatutako pertsonen ematen ari zaien espazioaren inguruan. Paul Ortegak erantzun du gogoeta hori egokia eta estrategikoa dela, eta klima-aldaketaren ondoriozko krisialdi humanitarioen egungo bilakaera integratzeko aztertu ahalko dela, 2018-2023 aldiko Ekintza Humanitarioko Estrategiaren ebaluazioaren esparruan.

4. Galde-eskeak

Paul Ortegak adierazi du urtea amaitu baino lehen egingo dela azken Kontseilu Errektorera deialdia genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketako prozesuen deialdiari buruz informatzeko.

Oihana Etxebarrietak 2023ko urtarrilean ZE(H)AR elkartearekin, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideetako Batzordearekin eta eLankidetzarekin batera "Giza eskubideen pertsona defendatzaileen" programari egingo zaion jarraipen-bidaia aipatu du, eta planteatu du interesgarria izango litzatekeela gune horiek aprobetxatzea Kontseilu Errektore honek onartu, eta Hondurasen eta Guatemalan izango diren zuzeneko dirulaguntzako proposamenak hurbiletik ezagutzeko. Alberto Cereijok jarraipena egiteko horrelako bidaiak gauzatzea egokia dela berretsi du, baina 2023ko urtarrileko misioaren agenda estua dela ere gogorarazi du.

Ez denez beste gairik proposatu, bilkura amaitutzat eman da 12:50ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE Jose Antonio Rodríguez Ranz, Giza
Eskubide, Memoria eta Lankidetzako
sailburuordea

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
GLEAko zuzendaria